

*Batzar
Nagusia*

BALANTZE

TXOSTENAK



1992

**ALDERDIAREN AZKEN LAU
URTEETAKO IHARDUNAREN
BALANTZE POLITIKOA**

**(1992ko Urtarrilaren 11an eta 12an egindako Batzar
Nagusian onarturiko Txostena)**

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1.º Esparru Orokorra	9
2.º 1987ko Uztaila-1991ko Uztaila epealdiaren hasieran eta bukaeran Euzko Alderdi Jeltzalearen egoera politikoari buruzko azterketa konparatiboa.....	10
3.º Euzko Alderdi Jeltzalearen barne ihardunbidea eta bilakaera	13
4.º Unerik aipagarrienak	14
5.º Argi-itzalak	18
6.º Amaiera	20

- 1.º Azken lau urteotan Alderdiaren ihardun politikoaren balantzea egiterako orduan, badirudi delako ihardun hori gauzatu den **ESPARRU OROKORRA**-ri buruzko aipamena aurretiaz egitea derrigorrezkoa dela. Egia esan, ezein ekintza politiko ezin da inguratzen duen esparrutik bereiztu, ezta garatzerakoan sorturiko inguruabar bereziak kontutan hartu gabe benetan ulertu edo interpretatu ere.

Zehatzegiak izan nahi ez eta, beren garrantziagatik azken urteetan zehar geure bilakaera politikoan zerikusi argia izan duten faktoreetariko batzuk aipatu beharko lirateke.

A – Euzko Alderdi Jeltzalean gertaturiko zatiketa, ia erakunde guztiak jaurtzen zituen alderdian eragina izan eta Herriaren ikuspegi politikoa aldatzeaz gain, ondorio garrantzitsuak zekartzan atxekiturik; esate baterako:

- a) Euskal egoera politikoaren konplexutasun handiagoa.
- b) Sortutako krisiaren ezaugarrien eta esparru politikoaren bilaketa eta desberdinketa beharizanaren ondorioz dagoeneko zatituegi zegoen egoeraren nahitaezko bihurtura.
- c) Sorturiko banaketari buruzko arrazoiak emateko beharizanaren arloan, Euskal Elkarte Autonomoaren barne esparru instituzionala zalan-tzan jartzea.
- d) Arestian aipatutakoaren ondorioz, lehenasunez aztertu beharreko eze-gonkortasunezko egoera politiko eta instituzionala gertatu zen.

B – PSOE-ren gehiengo osoa Estatu mailan, epe laburrean benetazko alternantzia politiko aukerarik gabe.

C – Abagune ekonomikoaren hobekuntza orokorra, batez ere arteragoko urteekin konparatuz gero.

D – Europaren eraikintza prozesua: 1993ko Urtarrilaren 1etik aurrera, Akta Bakarra indarrean sartzearekin bat, moneta eta ekonomi batasunerantz abiatuko da Europa, batasun politiko europarraren bidean funtsezko urratsak emanez.

Handik eta hemendik jasotako erreferentzia labur hauek, epe honetan Alderdiaren iharduna garatu den testuinguru politikoaren nondik norakoa zehazteko balio dezakete.

2.º Lau urte hauetan zehar, 1987ko Uztaila-1991ko Uztaila epealdian hain zuzen, Alderdiaren ihardun politikoaren balantzea eta dagokion balorazioa egiterakoan, ahaztezinazko beste atal bat **AIPATU EPEALDIAREN HASERAN ETA BUKAERAN EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN EGOERA POLITIKOARI BURUZKO AZTERKETA KONPARATIBO**A egitean datza, bere alor desberdinetan: hauteskunde mailan, beste indar batzurekin harremanetan jartzean, erakundeek ematen duten irudian, etab.

A - Hauteskunde azterketa.

Hauteskunde mailan hitzeginez, Euzko Alderdi Jeltzalearen baitan gertaturiko zatiketa 1986ko Ekainaren 22an ospatu ziren Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan nabarmentzen hasi zen. Ordurarte, eta hobeto esanda 1984ko Otsaileko hauteskunde autonomikoetararte eta botu kopurua kontutan harturik, Euzko Alderdi Jeltzaleak etengabeko igoera ikaragarria izan zuela behar da adierazi, 1980ko aurreneko hauteskunde autonomikotan lorturiko 349.102etatik 1984ko Otsailean ateratako 451.178etara hain zuzen ere.

Baina 1986an, dagoeneko zatiketa gauzatua zela eta Irailean EA sortzearekin batera, Euzko Alderdi Jeltzalearen apurka-apurkako botu kopuruaren beharakada hasi zen hauteskunde aurkaketa guztietan isladatuz, jarraian agertzen den koadroan azaltzen den moduan, jaitsiera honek barrena 1987ko Ekainaren 10eko Europako Parlamenturako hauteskundeetan jo zuelarik:

88ko Azaroa <i>Autonomikoak</i>	87ko Ekaina <i>Batzar Nag.</i>	87ko Ekaina <i>Udal Hautes.</i>	87ko Ekaina <i>Europar Parl.</i>
271.208	253.223	240.293	208.135

1989ko Ekaineko Europako Parlamenturako hauteskundeetan, Alderdiaren zatiketaren ondoren eta Zestoako Biltzarren (1987ko Uztailaren) ostean hasitako normalizazio politiko eta organikoan Euzko Alderdi Jeltzaleak ezinbesteko bultzakada jaso zuen. 1989aren urte amaieran, Euzko Alderdi Jeltzalea poliki-poliki baina etengabe hasi zen 1986an hain azkar moztutako hauteskunde esparrua bereganatzen.

Apurka-apurkako botuaren berreskurapena ondorengo lauki honetan nabari daiteke:

89ko Urria <i>Dip. Kongresua</i>	90ko Urria <i>Autonomikoak</i>	91eko Maiatza <i>Batzari Nagusiak</i>	91eko Maiatza <i>Udal hauteskund.</i>
252.119	289.152	293.580	296.598

Argi dago Euzko Alderdi Jeltzalearen botuen gorakadak esan nahi duela politika egiteko modu berria, bai barrukoa, bai erakunde mailakoa, berezko hautatzailegoan izan duela eraginik, 1989an ospaturiko hauteskundeetan hasitako goranzko aldia finkatuz.

Modu horretan, Euzko Alderdi Jeltzalea zatiketa aurreko emaitzetara hurbilduz doa, nazionalismo demokratikoaren egitasmo biltzaile nagusi bezala ezarritz.

Honi lotuta, Euzko Alderdi Jeltzaleak izan duen botu galtze eta berreskuratze prozesua, aldi berean EAn gertatukoaren kontrako delat esan behar da, ondorengo laukian ikusi daitekeen bezala:

	86ko Azaroa <i>Auton.</i>	87ko Ekaina <i>Bil.Ng.</i>	87ko Ekaina <i>Udal.</i>	87ko Ekaina <i>Euro. P.</i>	89ko Ekaina <i>Euro. P.</i>	89ko Urria <i>Kongr.</i>	89ko Urria <i>Auton.</i>	91eko Maiatza <i>Bil.Ng.</i>	91eko Maiatza <i>Udal.</i>
EA	181.175	190.136	193.197	172.411	125.227	123.613	115.155	123.437	118.112

Hauteskunde azterketa labur honetan, kontutan hartu beharreko eragilea dago: PSE-PSOEren botuaren bilakaera.

Hauteskundeetako emaitzak aztertuz, partidu honek bizi izan duen garapenak ez duela partidu nazionalistak izandako gorabeherarik izan nabaritu daiteke; beheranzko joera izan du hauteskudez hauteskunde. Horrek partidu horren egonkortasuna adierazten digu argi eta garbi: bere hauteskunde esparrua agortu egin du.

Euzko Alderdi Jeltzalearen botuak hiru lurraldeetan izan duen bilakaeraz orokorki jabetzeko balio digu ondorengo eskemak:

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Batuak	%	Batuak	%	Batuak	%
86ko Azaroa <i>Autonomiak</i>	28.103	20,20	183.766	28,94	59.339	16,03
87ko Ekaina <i>Batz. Nag.</i>	23.185	17,60	161.899	27,58	50.139	14,32
87ko Ekaina <i>Udal hautesk.</i>	20.923	15,77	165.697	28,18	53.673	15,33
87ko Ekaina <i>Europ. P.</i>	17.982	13,62	145.251	24,99	44.902	12,82
89ko Ekaina <i>Europ. P.</i>	17.578	14,93	140.083	26,51	44.148	14,40
89ko Urria <i>Dip. Kongr.</i>	23.247	17,00	171.582	28,10	57.290	16,27
90eko Urria <i>Autonomiak</i>	28.371	22,56	192.420	34,60	68.361	20,56
91eko Maiatza <i>Batz. Nag.</i>	31.535	26,10	193.362	36,16	68.383	20,83
91eko Maiatza <i>Udal hautesk.</i>	34.954	29,09	191.297	35,66	70.347	21,45

Euzko Alderdi Jeltzaleak Nafarroan eta Iparraldean duen egoeraren aipamenik eman ezik, hauteskundeak buruzko azterketa osoa denik ezin esan.

Nafarroari dagokionez, Alderdia behetik dabilela esan behar dugu. Dena den, arrazoizko ustantzak jarritako berrindartze prozesua urratu nahi duen berrantolaketa mamitzen ari da azken aldiotan, oraindik hauteskunde emaitzetan behar beste berretsi gabea.

Bestade, Iparraldean sartu berriak garenez, eta Alderdi barruko berreraketari eta lurralde honetako gizarte eta politika arloan oihartzuna duten aurrerabideei loturik, hurrengo hauteskundeen aurrean, Euzko Alderdi Jeltzalearen geroa itxaropentsua espero dugu.

- B – 1986ko Azaroaren 30eko hauteskundeak bide, atara zen Kualizazio Gobernuaren negoziaketa prozesuak ezagututako zatiketa ekarri zuen krisialdi luzearen ostean, Euzko Alderdi Jeltzalea eta beste partidu politikoen arteko harremanak zenbatcraingo galdu zirenen adierazgarri.

Zenbaitek Jaularitzan Euzko Alderdi Jeltzaleagaz ez elkartzeko agertu

zuten grinaz aparte, egia da negoziaketa prozesuaren aldi luze batean zehar Alderdiak zeharo baztertua ikusi zuela bere burua –zentzu horretan gogora dezagun Legebiltzara osatzeko PSE-PSOE, EA eta EE-ren arteko akordioa–, eta aipatu indarren tripartitoaren porrota izan zela Euzko Alderdi Jeltzalea Jaularitzara zuzendu zuena, sozialistekin eginiko kualizazio akordioa zela medio.

Egoera haren parean, legegintza-aldian, arazoan aurreko zenbait gaitan ahalik eta akordio mailarik handienetara heldu asmoz, Alderdiak jarraitutako politika estrategiko eta elkarrizketak aurrera eramateko egindako ahaleginek, lehenago aipatutakoaren aldean, egoera erabat eraberritua ekarri dute, praktikan Euzko Alderdi Jeltzalea baino ez delarik elkarrizketak eta euskal eremu politikoaren indarrekin akordioa aurrera eramateko gai.

- C – Beste horrenbeste esan liteke Alderdiaren kanpoko itxuraren berreskurapenari buruz, aldi honen hasieran oso hondatua, bi urtez luzatutako barne krisi eta zatiketa larria zirela medio. Bizi izandako aldaketek ohartzeko, nahikoa litzateke komunikabideek 1985, 1986 eta 1987 hasieran argitara emaniko berriak aztertzea eta azken urte hauetakoekin alderatzea.

- D – Laburbilduz, une honetan Euzko Alderdi Jeltzalea duela lau urte baino askoz ere egoera hobean dagoela baieztatu dezakegu, hautatzailegoaren oneritziagatik, erakundeetan egon eta beste indarrekin harremanetan jartzeko duen ahalmenagatik ezezik, norbaitzuk Euzko Alderdi Jeltzalearen “*erdikotasuna*” deitu dutenagatik ere, neurri handi batetan Euzkadiren politika erabaki eta Estatuan eragiteko ahalmena duena.

- 3.º Azken lau urteotan Euzkadin, politika mailan bizi izandako unerik garrantzitsuenak aipatu aurretik, garai honetan **EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN BILAKAERA ETA BARNE ANTOLAKETA** aztertuko dugu.

Ez dago zalantzarik aurreko atalean aipatu eta azken urteotan bizi izandako aldaketa eta eskuratutako lorpen asko, Alderdiak aurrera eramandako politika estrategikoei esker direla, jendcarengan eragin handia eduki duen “*Arriagako mezu*” delakoarekin urratua.

Egun, esan dezakegu aipatu mezuak zuen proposamen politikoak izan duela eraginik euskal gizartean, akaso horren atzean zeuden lan, txosten eta eztabaidei esker; “*2000.era*ko Nazionalismoa” izenburupean eman zitzaion hasiera Zestoako Ezohizko Aberri Batzarrari. Alderdia egungo egoera politikoari egokitzeko ahalegin inportantea, gizartearen zati handi batek aintzat hartua.

Logikoki, egokitze ahaleginak, Alderdiaren estrategian eta politika norabidean ezeze, bere ihardueran, harremanetan jartzeko eran, barne eta kanpoko “*modus operandi*”-an ere izan du eraginik.

Bestalde, zatiketak, kostu larri eta guzti, ondorio onuragarriak ere ekarri zuen. Aldi horretan Euzko Alderdi Jeltzaleak izan duen barne loturaz aparte, burututako gogoetak, Alderdiaren barne eta kanpoko funtzionamendua hobetzeko baliagarri suertatu diren neurriak hartzea bultzatu zuen, besteak beste Alderdiaren antolakuntza. Estatutoen eraberritzea ere lagungarri izan da, aldatzeko asmoa lehenagotik bait zetorren.

Horrela, bada, aurreragoko garaiekin alderatuz, eraginkortasun, kudeaketa, ihardutze, jazarpen eta erantzun ahalmen handiagoa lortu da; baita presentzia politiko eta egintzapidetasun handiagoa ere.

Hala ere, presentzia handiagoak ez gaitu garaitetasun agorretara bultzatu behar. Zatiketaren ostean geneukan baino gizarte eta hautatzailegoarekiko eraginkortasun nabarmenagoa daukagu, baina zalantzarik gabe, zatiketa aurreko presentziaz alderatuz, okerrago gaude, eta beraz, gure eraginkortasun, kudeaketa, jazarpen, eta erantzun ahalmena hobetzeko prozesu etengabeari ekin behar diogu. Politika eta gizarte esparru zabalagoa bilatuz.

Eraginkortasun handiagoaren ordainez, eta betidanik Alderdiaren bizitzaren ezaugarri izan den demokraziaren galerarik gabe, Eskualdeetako Exekutibean eta beren iharduerak zertxobait berraztertzearen beharra ikusi dute norbaitzuk; baita Batzar Nazionalaren egiteko politikoa finkatzekoarena ere.

4.º Atal honetan, Alderdiaren ikuspegiaren arabera, Euzkadiaren politika bilakaeran suertaturiko **UNERIK GARRANTZITSUENAK** birpasatuko ditugu, balio-neurtzen ari garen aldirako.

A – Euskal Erakundearen finkapena. Argi dago joan den legegintza-aldian zehar, gure autogobernu ahalmena osatzen duten erakundeak finkatzen finkatzen joan direla.

Gure barne erakunde esparruari buruzko eztabaida gogorraren erdian eman zitzaion hasera legegintza-aldiari, Batzar Nagusietarako hauteskundei buruzko Lege Saloaren Parlamentuko eztabaidarekin; honek, Parlamentuan ordezkaririk zituzten indar politikoen artean tirabira latzak ekarri zituen, oraindik zauriak zeharo sarratu gabe daudelarik, nonbait. Han sortutako eskumenari buruzko arazoak gain, denboraren joanak eta apurka-apurka lortutako normalizazioak, etorkizunean gaia egokiago eztabaidatzera bultzatzen espero du Euzko Alderdi Jeltzaleak. Edonola ere, garai hartako giroa azaltzeko adibide adierazgarri bezala aipatzen da gertakizuna.

Dena den, legegintza-aldiaren amaierarako egoera zeharo aldatuta zegoela esan daiteke. Zenbait arlotan gure barne erakunde antolaketa guztiz gauzatu egon ez arren, lortutako aurrerapenak eta gaiari buruzko aburu-batasun mailak, neurri handi batetan, aldi luze honetan sortutako egonkortasun politikoa lortzen lagundu dute; baita eztabaidagai eta indar politikoen arteko haserregai izan ez zitezen ere.

Bestalde, gure barne erakunde sarea zuzentzen duten arauak betetzen lortutako eskarmenduak, balorazio positiboa egitea uzten du, orokorrean onak izan diren emaitzen arabera. Horrek ez du esan nahi aipatu arau esparrua osatzeko beharrik ez dugunik, egungo hutsune edo gabeziak bete daitezzen.

B – Modu berean, Alderdiaren egitekoa orokorrean positibotzat balio-neur daiteke bizitza politikoan; baita erakundeekiko harremanetan ere. Erakundeetan parte hartu eta iharduteaz gain, berea duen dinamika eta presentzia politikoa eduki behar duen partidu bati ez zaio beti erraz suertatzen leku

egokia aurkitzea. Zentzu horretan, argi dirudi funtzionamendu egokia egon dela, eta Alderdiaren egitekoa Parlamentuaren ordezkaritzapenaren baldintzei ondo moldatu zaiela; baita Elkarte Autonomoko koalizio gobernu eta beste erakundeetako jaurtze sailen osaketari ere.

Alderdiaren funtzionamendu zuzenerako ezinbesteko deritzogun beste zerbait ez dugu ahaztu nahi.

Herrialde desberdinetako "bloke"-z osatutako EBBeko egitura itxuraldatzeak eta Alderdiaren eginpidetza sail bezala taldea osatzeak ekarri zuten ikuspegi berria ezinbesteko aurrerapausua izan dira.

Horrekin batera, liberatutako -edo politika eginbeharretarako erdi liberatutako- burukideen trebetasunak, haien dedikazio eta presentzia handiagoa ahalbideratu du erakundeetan, Alderdi Herriaren bizitza politikoan sakonago sartuz.

C – Aldi honetan eskuratutako lorpenen zerrendaketa oso, zehatz eta luze egia egin gabe -neurri handi batean aurreko legegintza-aldia bukatzean Jaularitzaren balio-neurketa aurkeztean zehatz-meatz argitara eman bait ziran- ezin ditugu garrantzitsuenak aipatu gabe utzi une honetan:

a) Gizarte eta politika normalizazioa. Politika bateratzailearen zehaztapenak bideratua, partidu politikoen arteko elkarriketa, negoziaketa eta akordio maila altuaz, eta egonkortasun politiko maila inportantea lortuz.

b) Ajuria-Eneako Hitzarmena, indarkeriaren arazoaren aurrean, euskal partidu politiko demokratikoen arteko aburu-batasuna lortzeko ezinbesteko eragile legez; baita gure gizartea hain nabarmenki astintzen duen gorabeheran, Lehendakariaren buruzagitzaren adierazgarri bezala ere.

c) Autogobernuari dagokionean, eskuratutako lorpen inportanteak: Insa-lud-en eskualdatzea, Inersoa eta Justizia Administrazioarako baliabide materialak; Kupoari dagokion akordioa, ezinbestekoa Kontzertu Ekonomikoa gordetzeko eta ekonomi eta finantza mailako gure oreka mantentzeko; Ertzaintza eta Estatuaren Segurtasun Indarren zerbitzuak mugatzen dituen akordioa, Ertzaintza guztizko poliziatzat onartzuz eta Elkarte Autonomoan, haren hedapen eta garapenaren gaineko hitzarmena, eta Estatuaren Segurtasun Indarren moldaketa; Elkarte Autonomoaren komunikabidei buruzko akordioa, gai horretan gure eskumenari buruzko eztabaidak baretuz eta E.I.T.B.ren egoera arautu eta finkatuz, aurreko aldietan tirabira zorrotz eta eztabaida biziak sortu bait zituen.

d) Gure irudia indartzea kanpora begira; Elkarte Autonomoaren handinahiko harreman politikaren hasera eta garapena; nazioarteko zenbait forotan Lehendakariaren partehartzea bultzatzea; estrategia aldetik, gero eta interesgariagoak diren sailetan Euzkadik partehartzea, esaterako Europako Kontseiluan, Herri eta Eskualdeetako Botereen Biltzarrean, Europaren Eskualdeetako Biltzarra, Bazterretako Inguru eta

Itsasaldeko Eskualdeen Konferentzia, Atlantiar Aldeko Inguruen Bazordea, Europako "Eskualde Indartsuak" delakoaren Konferentzia, R.E.T.I.-a eta abar; eskualde arteko eta mugaz kanpoko politikak bultzatu: Euzkadi-Akitaniaren elkarlaguntzarako Hitzarmena, Lombardia, Baden-Wurtemberg, Midi Pyrenées, Portugal Iparaldeko Eskualdea eta abarrekin elkarlaguntzeko egitasmoak, Pirineoetako Lan Elkarteari bultzakada eman, Akitania eta Poitou-Charentesekin batera, "Atlantiar ingurua" delakoaren sortzea eta bultzapena, zenbait frantziar eta portugaldar Eskualdeekin eta Elkarte Autonomoekin batera; Bruselako Bulegoa sustatu asmoz, INTERBASK sortu eta komunitateari buruzko informazioan aditutako argitalpenak kaleratu.

- e) Egoera ekonomikoa hobetu, aldi honetan ekonomian bizi izandako hobekuntza orokorraren laguntzaz, baina baita azken garaiotan Euskal Sektore Publikoak ebatzirik neurriei, eta horretarako garatutako gizarte eta enpresa ahaleginei esker ere.

Atal honen barruan oso da garrantzitsua "93ko Europar, Euzkadi Egitasmoa", bai Herriaren modernizazio arloari dagokionean, hurbiltzen ari zaigun Merkato Bakarrean leihatzeke moduan egoteko, bai Familiako Diru-sarrera Gutxiengoa dela bide, baztertzeko eta ekonomi larritan egoerak arintzeko.

Aurreko aginpidetza-aldian, bere eskumeneko inguruetan azpiegitura mailan ezinbesteko inbertsio egiteko Administrazio Zentralarekin lortutako akordioek -Abiadura Handiko Trena, Portuak eta Aeroportuak- Elkarte Autonomoarentzat ekonomia arloan oso inportanteak ziren egitasmoen aurrepausua adierazi zuten, nahiz eta aipatu akordioetan emaniko berba betetzeari dagokionean zalantza handiak dauden.

- D - Aldi honetako beste une garrantzitsua da Euskal Herriaren Autodeterminazio Eskubideari buruz Parlamentuak onartutako Hitzarmena, egoki josia; demokrazia ikuspuntutik begiratuz, eskubide eztabaidaezinaren defentsa eta aldarrikapena adierazten du horrek, eskubidearen ekinaldiak izan behar duen erantzunkizunaz, une bakoitzeko egoera eta inguruabarrek bat etorritik; baita hiritarrek askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondatearekin ere, eta beraz, Estatutoarekin, Herria eratu eta autogobernua garatzeko euskal gizarteak aukeratutako bide bezala.

- E - Euzko Alderdi Jeltzaleak aldi luze honetan zehar urratutako negoziaketa bide ireki bezain zabalean, izatez eta egitez, bi nabarmen daitezke, zeharo desberdinak, akordio batetara heltzeko baldintza eza zela eta, ezin izan zirenak burutu. 1989ko Urriaren 29an ospatutako Senadurako hauteskundeetan EA eta EEREkin paktu tripartitua egiteko ahaleginez ari gara; baita PSOErekin negoziaketetan jartzeko ere, Felipe Gonzalez Gobernuaren Presidente izendatzeari zegokionean, Euskal Nazionalistak Parlamentu Taldeak Kongresuan aldeko botua emango ote zionentz eztabaidatzeko. Prozesuek ez ziran Euzko Alderdi Jeltzaleak eskatuta hasi; horrek ez du esan nahi honek ez zituela elkarriketak seriotasunez eta zuzentasunez aurrera eramanez.

- F - Arreta berezia merezi dute 1990eko Urriaren 28an ospatu ziren hauteskunde autonomikoetatik atera zen Jaurilaritza osatzeko negoziaketek eta azkenean lortutako akordioak.

Inor gutxi antzeman zezakeen lortutako azken emaitza. Izan ere, denek pentsatu zuten Euzko Alderdi Jeltzalea eta Partidu Sozialistaren arteko akordioa errepikatuko zela, eta eman ere burututak eman zen. Eta, egia esan, aurreko esperientzia eta lortutako emaitzak bide, irtenbiderik logiko eta normalena zirudien.

Hala espero eta eta iragarritako emaitza ez lortzean, arrazoiak bilatu behar. Eta honelako kasuetan, azalpen arraro eta konplexuak bilatu ohi dira, beharbada arrazoiak sinpleagoak direnean. Eta horrela, inoiz izan ez diren jarrera, estrategia eta harantz-honuntzak argudiatzen dira; hauek interesa suspertzen dute baina baita morboa ere.

Logikoki, Euzko Alderdi Jeltzalearen estrategia, aurreko koalizio akordioa urratu eta Herriari ondorio positiboak ekarri zizkion bidetari ekitea izan zen. Beraz, ez zegoen zertan akordio bat edo beste ezarri beharrik -ez zen beharrezko eginkizun bezala batere proposatu-, lau urte lehenago hartutako konpromezua aurrera eramaneztea baizik. Ez zen posible izan, beharbada Partidu Sozialistaren kideren batzuk, hauteskundeetako emaitzak arin-arinka eta orokorrean ez ulertzeagatik, estrategia aldatu beharra ikusi zutelako hain zuzen.

Hemengo helburua ez da negoziaketa hilabete luzean ostean Partidu Sozialistarekin bi-aldetako hitzarmena, eta geroago tripartitua, izatea eragotzi zuten arrazoi jakinak bezain korapilatsuen azalpen zehatzak ematea. Nahikoa izan bedi honako hau aipatzea: akordioaren baldintzak jartzeko orduan abiapuntutaz menpekotasun eta makaltasun egoera heldzea ez zirudien arrazoizkoa; PSOErekin akordio batetara derrigorrean heldu behar izan arren ere, ez aurretik gainerako irtenbideak aztertu eta lekua eman gabe. Gainera, horri, hurrengo udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeek lekarketen arriskua gehitu beharko litzaioke.

Are eta onargaitzagoa, ezen, politika egonkortasuna zalantzatan jarri bait zuen, hain zuzen ere aurreko Gobernuari egotzi zaion hutsa. Euskadiko Partidu Sozialistak, aurreko legegintza-aldiko Gobernuan bere presentziaz behar beste etekinik atera ez zuela ikusirik, plazako neurri berriak ezarri nahi izan zituen politika aldeko bereizketa argiagoa eta koalizioaren barruan buruzagitasuna bilatuz; baita Gobernuaren barruan beste gobernu bat sortuz ia-ia, edo aldi bereko Gobernu bi, zegokien Sailen funtzionamendu aldeko autonomia handiagoa lortu eta Lehendakariordetza indartu asmoz ere, bigarren Lehendakariitza antzeko zerbait bilakatu guran, sail eta erakunde arteko eginpidetza egitasmo edo egitarau handiak gidatu, koordinatu eta kudeatzeko, izugarriko aurrekontu ahalmena emanez.

Modu horretan, hasiera batean uste ez zen koalizio tripartitora heldu zen, jaurtze egitarau zabal eta landu-landuan oinarriturik.

G – 1991ko Maiatzaren 26an ospatutako Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeek Euzkadiren politika eremuan aldaketa berria ekarri zuten.

Gasteizko Jaurlaritza eratzeko, emaitza bezala akordio tripartito abertzalea eman zuten negoziaketek; denboran hain hurbil egonik, logikoa zirudien negoziaketok Udal eta Foru Aldundietara hedatzeak. Baina ezinezko suertatu zen.

Eusko Alkartasunak, eta batez ere, Euskadiko Ezkerrak Araban emandako atzerapausuak –Unidad Alabesaren igokada nabarmenari loturik–, atek sarratu zizkion Arabako Aldundiaren Jaurlaritza eta Gasteizko Udala osatzeko orduan, era horretako akordiorik sinatzeari.

Bestalde, formula hori ez zen nahikoa Donostiako Udalaren

jaurkortasunaren berme bezala; aldi berean, Alderdia eta Eusko Alkartasunaren artean interes arazo larria sor zezakeen, Gipuzkoako buruzagitasunari zegokionean.

Egoera honen aurrean, Euzko Alderdi Jeltzaleak, hauteskunde garaile legez, PSE-PSOErekin batera negoziaketa prozesuari eman zion hasera, Herriaren taiuketa orekatua lortu asmoz, erakundeetako jaurtze lan egonkorra bermetzeko gehiengo indartsuenetan oinarrituz.

Testuinguru honetan, hitzarmen orokorra sinatu zen PSE-PSOErekin, ez lurraldeka, Elkarte Autonomo osoan aplikagarria baizik; horren arabera, Euzko Alderdi Jeltzaleak hiru Foru Aldundietako buruzagitasuna lortu zuen; baita Bilbo eta Gasteizko alkatetzak ere, Donostiako alkatetza sozialisten eskutan geratu zelarik, Partido Popularrari esker.

5.º Azken lau urteotan garatutako ihardueraren balio-neurketa ez litzateke osoa, harik eta unerik garrantzitsuenekin eta aurrerago aipatu aurrerapenekin **ARGI-ITZA-LAK** ere agerian jarriko ez balira: argitasun eta itzalpe inguruak, oraindik konpondu gabeko arazoak, zalantzak, eskuratutako ezbaierik gabeko lorpenak zehazten dituztenak eta hurrengo urteetako politikaren abiapuntutzat har daitezkeenak.

A – Modu horretan, lehenago labur-labur aipaturiko gure erakunde eta barne antolaketa esparruaren finkapenarekin batera, zentzu horretan oraindik konpondu gabe dauden zenbait gai jakini irtenbidea aurkitu beharra aipatu beharko litzateke: gure erakunde sarearen barruan, Udalen behin betiko tokia finkatzea, balizko zenbait egoeratan Foru Erakundeak Konstituzio-epaitegira jotzeko aukera izatea, Jaularitzak burutu eta aurreko legegintza-aldian Parlamentuari aurkeztutako Lege Saloa berrartuz, Batzordea edo Ebazpen-batzordeak martxan jartzea, besteak beste.

B – Gizarte batasun eta euskal gizartearen politikan, erakunde eta kultura taiuketan oraindik bide luzea ibili behar dela adierazten dute Unidad Alabesa bezalako gertakariak.

C – Aspaldion, Heziketa eta Euskaralako gai garrantzitsuetan eta arlo horietan sinatutako hitzarmen eta eskuratutako lorpenei buruz aburu-batasuna lortzeko eginahalak egin arren, aitortu behar da sakonean oraindik bat etorri ezinak daudela eta egungo egoera ez dela gura bezain ona.

D – Autogobernuaren garapenaren lehenago aitatu aurrerapenekin batera, aspaldion, autonomi gai guztietan, eskualdatze prozesua barne, dagoen geraldia ere izendatu behar dugu.

Zentzu horretan, kezkarria da baita ere zenbait Ebazpen sinatu berritan Konstituzio-epaitegiak agertutako dotrina.

E – Azken urteotan bizi izandako goraldi ekonomikoak, zailtasun eta krisi ekonomiko oneei zabaldu die atea; horrek inportantzia handiagoa ematen dio Elkarte Autonomoak ekonomiaren antolapenerako eta Euzkadin kokatutako Sektore Publikoaren enpresei dagozkien erabaki estrategikoak hartzeko irtenbideak bilatzeari.

F – Azken urteotan politika eta politikoak gutxiestearen joera nagusitu da. Gertakizun kezkarri, orokor, baina maila eta zehaztasun desberdinak dituen honek, ezaugarri bereziak hartu ditu Euzkadin, Euzko Alderdi Jeltzalean bizi izandako zatiketa eta horrek euskal egoera politikoan, eta zehatzago izateko, nazionalismo demokratikoan izan dituen ondorioak direla bide.

Egungo nazionalismoaren egoera konplexua eta zalantzarria –une honetan zenbait partidu politiko jasaten ari diren krisiarekin batera–, datozen urteetan beharrezko argitasunez edo aldaketa dela medio eraberrituko dela uste da. Ager daitezkeen arriskurik nagusienetakoak, nolabaiteko etsipena eta sektore nazionalisten desmobilizazioa.

Bestalde, “normalizazio” edo “normaltasun” kontzeptuari positibo kutsua ematen zaio; are gehiago aztertutako aldi haseran bizitako inguruabarrean. Baina ikuspegi nazionalistatik begiraturaz, ez da orokortu behar, ez bait dizkigu ahazterazi behar, ibili beharreko bidea, konpongabeko arazoak, eta Herria eta bere autogobernuaren oinarritzko eraketa oraindik ez direla bukatu.

G – Europako nazionalismo jakinak berbizteak zera erakusten digu: zenbait giza balorek egoera historiko zehatzak izan daitezkeenak baino gehiago irauten duela; gizarte baten lehen mailako eragile biltzaile eta dinamizatzaile direla; inguruabar desberdinetan mamitu arren, eta beldurra edo indarkeriaren beldur isildu ezker, konpondu nahi den arazoari irtenbidea bilatu beharrean, egiten duena dela, ezaugarri horietako giza prozesuak buztartuta eraman ditzakeen indar ahalmen, sinergien aprobetxamendu eta bideratze hobea ahalbideratuko lukeen tratamendu egokia eragotzi; itxuraketa eta osaketa prozesuaren eragilerik behinenetarikoa izan daitezkeen aldagarria, zaitzaile bihurtu.

Inguruabar eta jokoan dauden interesen esparruan, sistema demokratikoaren printzipioak behar bezala errespetatuz, arrazoietan oinarrituz eta erantzunkizunez hartutako erabaki libreak direla bide bakar-bakarrik, lotu daitezke herrien arteko hartueman oparoa eta elkarbizitza.

Oinarririk gabeko mimetismo errez eta agorrek ekidinez, une honi egoki deritzogu azken hamabi urteotan urratutako bideari buruzko gogoeta serioa burutzeko; baita datorren gizaldirako espero dugun geroari buruz-

koa ere. Argi dago horrek Txostenaren helburua gainditzen duela. Mezu eta jarrera abertzaleak Berlingo hormaren erorketatik jaiotako egoera politiko berriari egokitzea, antzinako Sobiet Batasuna barne dela Europako Ekialdeko herrien aldaketa, nazioarteko ordena berria, Europako batasun ekonomiko eta politikoa lortzea behar beharrezkoa da; baita lan itxaropentsua ere, egoera politikoak aurkezten dituen ikuspuntu berriak begiratuz gero, Horrek esan nahi du baita ere, azkenaldiotan munduan bizi diren aldaketetatik sortuko den egoera berriari egokitzeko prest egon behar dugula, garapenerako eta gure autogobernua sakontzeko inguruabarron alde onak aprobetxatzen jakin dezagun.

6. Alderdiaren azken lau urteotako ekinbidearen Balio-neurketa Politikoak, ezingo litzateke osotat jo, labur-labur eta **AMAIERA** lege, Euzkadiren azken gertakizun politikoaren aipamenik egin ezik.

EAJ-EA-EE-k osatutako Jaurlaritza tripartitoak 7 hilabetez iraun eta gero, Ardanza Lehendakariak, berbideratzeko eginahalak egin arren, beste irtenbiderik ikusi ez eta, apurtu egin zuen hitzarmena, EA-ko Kontseilariari kargua kenduz.

Ondorioa, HB eta EA-k Euzkadiren Independentzia aldarrikatuz aurrera eramandako udal adierazpen kanpaina.

Jaurlaritza tripartitoaren partaide batek garatutako prozesuak, "de facto" bere burua Jaurlaritzatik kanpo jartzen zuelako eritziairen aldekoak ziren Lehendakaria eta Euzko Alderdi Jeltzalea. Aldi berean, horrek esan nahi zuen, politikoki, EAJ-EA-EE-k beren borondatez sinatutako Jaurlaritza egitarautik kanpo beste eginpide inguru bat bilatu behar zela, estatuto esparrutik independentzia prozesurako bidea urratzen zela.

Egitasmo eta ideia zintzoak, Independentziak, inoiz gutxitan izan du EA-k bultzatutako egintzapidearen "ordezkari" txarragorik. Abertzale munduan hain garrantzi handiko egintzapide politiko bat, inoiz ez da hain gaizki erabilia izan; ezta hainbesteko aldekoeriaz ere. Zergatik? Zer ezkututzen zen egintzapidearen atzetan? Bazegoen plan zehatzik nazioarteko onarpena lortu asmoz?, edo, herri mailan eginiko adierazpenen lekukotasunean baino ez zen gelditzen? Horretarako zergatik ez zen Parlamentua aukeratu? Badu zentzurik Udal batek bera barne dagoen lurralde eta tokiaren independentzia-adierazteak? Gizartearen anizkotasuna kontutan izan zen? Jakinaren gainean zegoen egintzapidea, halabeharrez, bere buruaren "kalterako" zela eta gizartearen zatikatzen zuela?

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere buruari egin zizkion galdera hauek eta beste zenbait egoera eta gertakizunen logikaz erantzuna eman zitzaion. Kalteak besterik ez, egintzapideak ez zekarkion euskal herritarrei inolako etekinik. HB eta EA-ren egintzapideari erantzuna eman zion adierazpena elkarrekin burutu zuten Euzko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Ezkerrak, eta Jaurlaritza mailan prozesuaren zuzenketa eta berbiderapena eskatu zitzaion EA-ri.

Argi dagoenez, EA-ren idiosinkrasia berezia zela eta, ezinezko bihurtu zen hori, Jaurlaritzaren Lehendakariak agindutakoa betetzen ez zuenez, ez bait zegoen beste irtenbiderik Jaurlaritza hitzarmena apurtzea baino.

Jaurlaritzaren krisia, EA-ko Kontseilariari kargua kentzeaz eta ondorik zetorren parlamentu laguntza galtzeaz batera suertatu zen, EE-ren barnean ezadostasunak nagusitu ziren bitartean. EE-ren parlamentu taldearen 6 legebiltzarkideetatik 5en jabe zen Añamendi taldea, ez zetorren bat EE-ko zuzendaritzaren erabakiekin; ezta Lehendakariak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak krisi prozesua bide-ratzeko eta konpontzeko urratu zuten bidearekin ere, zegoen Jaurlaritzari laguntza ukatuz.

Ageriko krisi egoera hartan, parlamentu talde jakineko partidu politiko batek besterik ez zuen bermetzen erabateko gehiengodun Jaurlaritza, PSE-PSOEek hain zuzen.

Negoziaketak azkar burutu ziren, (porrot egin zuten) aurrekoetan jarraitu ez zen metodologian oinarrituz. Lehenago egindako akatsetatik ikasi genuen partidu biok eta ez ziren berriz errepikatu.

Krisia piztu eta 15 egunetan itzali zen EAJ-PSE/PSOE-EEk osatutako Jaurlaritza, legebiltzarraren osotasuna diren 75 parlamentaririk 39ren laguntzaz.

Hortik aurrera, beste guztia geroak erabakiko du. Dena den, prozesu eta egoera honetatik Euzko Alderdi Jeltzaleak zerbait ikasi du.

Beste beste, begi bistakoa: ezin daiteke elkar-jaurtzi norberangandik alden duen zatia (EA-rekin), botere pertsonal arrazoiak bide urrundu denean, banatutako zatia maldan behera egon (politikoki hitzeginda) eta ez duenean mezu berezirik, ez hazteko esparrurik.

Beste arrazoi argia, abertzaleen arteko Jaurlaritza, esperientzia ederra izan zitekeen eta bakoitzak bere ikuspegi propioa izan arren, nazionalismoa egitasmo bateratzaile lege zuriz janztea; baita egokiena ere indarkeria erabiltzen dutenen aurrean, Ezin izan da burutu. Edonola ere, eta Euzko Alderdi Jeltzalean prozesuaren eta porrotaren erantzule nor den argi jakin arren, jaurlaritza abertzalearen eskarmentuaren porrotari dagokionean, Euzko Alderdi Jeltzaleari doakio bere erantzunkizunaz kargutzea.

Baina honekin batera, beste ondorio argi bat ere: Euzko Alderdi Jeltzaleak ez du euskal gizartearen bateratu eta lotu beharrean, zatikatu eta kikolduko duen politika mailako egintzapiderik aurrera eramango.

Nazio eraketa prozesuak herriaren gero eta atxekitasun handiagoa ez badu abiapuntutzat hartzen, itzelezko porrotaren aurrean ikusiko du bere burua.